

2019KO ABENDUAREN 18AN BATZARRAK EGIN ZUEN BILKURAKO AKTA.-

Tolosako udaletxearen Pleno aretoan egin du bilera 2019ko abenduaren 18an, 18:17tan, TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEAREN Batzarrak, OLATZ PEON ORMAZABAL Lehendakaria mahaiburu delarik, eta horretara ondoren zerrendatuko diren udaletako alkate eta zinegotziak bertaratu dira:

BERTARATUAK:

BATZARRAREN LEHENDAKARIA (%31,50): Olatz Peon Ormazabal
ADUNAKO UDALA (%0,76): Josu Amilibia Alsua
ALEGIAKO UDALA (%2,78): M^a Aranzazu Irazusta Etxeberria
ALKIZAKO UDALA (%0,60): Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez
AMEZKETAKO UDALA (%1,51): Iñaki Amundarain Tolosa
ASTEASUKO UDALA (%2,47): Aitor Usandizaga Izagirre
BERASTEGIKO UDALA (%1,74): Amaia Azkue Eizagirre
ELDUAINGO UDALA (%0,39): Ohiana Amundarain Zubillaga
GAZTELUKO UDALA (%0,25): Edurne Garcia Azurmendi
HERNIALDEKO UDALA (%0,50): Aitor Zubillaga Celaya
IRURAKO UDALA (%3,00): Gorka Murua Macuso
LARRAULGO UDALA (%0,41): Aitor Biestegui Fiallegas
LIZARTZAKO UDALA (%0,97): Iñaki Azpiroz Beldarrain
OREXAKO UDALA (%0,20): Gurutze Etxezabal Iturrioz
VILLABONAKO UDALA (%9,49): Beatriz Unzué Esnaola

ETORRI EZ DIRENAK:

ABALTZISKETAKO UDALA (% 0,52): Jon Zubizarreta Aldaia
ALBIZTURKO UDALA (%0,50): Iñaki Orbegozo Arrospide
ANDOAINGO UDALA (%23,58): Maider Lainez Lazcoz
BALIARRAINGO UDALA (%0,22): Andoni Olano Manzano
BELAUNTZAKO UDALA (%0,39): Silvia Moneo Cid
IBARRAKO UDALA (%6,73): Igor Zapiain
LEABURUKO UDALA (%0,61): Arkaitz Esnaola Huici
ORENDAINGO UDALA (%0,35): Eneritz Olano Iriarte

GAI ZERRENDIA

Hona hemen bilerari dagokion Gai-zerrendia:

1. 2019ko urriaren 24ko Batzarraren osaketa Akta onartzea.

2. 2019ko urriaren 24ko ez ohiko eta urgentziatzko Batzarraren Akta onartzea.

3. Lehendakariaren Ebazpenen berri ematea: LE20190529.015tik LE20191126.036ra.

4. 2020 ekitaldirako Mankomunitateko plantilla organikoa eta langileen lanpostuen zerrendaren aldaketaren hasierako onarpena.

5. 2020 ekitaldirako aurrekontua eta bera gauzatzeko araua hasiera batez onartzeko proposamena.

6. Mankomunitateko langileen ordainsarien igoeraren onarpena (2019ko uztailaren 1etik aurrerako eraginkortasunarekin).

7. 2020 ekitaldirako Idazkari eta Kontuhartzaileen izendapena, lanpostuak behin betiko izaeraz hornitu bitartean.

8. Berri ematea: Tolosaldeko Mankomunitatearen estatutoen aldaketa prozedura berria bideratzeko aholkulari juridikoa kontratatze prozesuaren egungo egoera.

9. Galde-erreguak.

Mankomunitateko Idazkari den Leire Arteaga Zumetak ematen dio fede ekintzari.

Lehendakariak Altzo, Anoeta, Berrobi eta Ikaztegietakako ordezkariak gutunak aurkeztu ondoren eta Idazkariak estatutuetakoko 18.2 artikuluan diona egiaztatu ondoren, aipatutako udalerrri hauen ordezkariak jarraian agertzen den moduan geratzen da:

ALTZOKO UDALA (%0,69): Ordezkaria, Gurutze Etxezabal Iturrioz

ANOETAKO UDALA (%3,28): Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

BERROBIKO UDALA (%0,97): Ordezkaria, Aitor Biestegui Fiallegas.

IKAZTEGIETAKO UDALA (0,79): Ordezkaria, Gurutze Etxezabal Iturrioz.

Estatutuen 45. artikuluan xedatzen den bilerakideen kopurua bete denez lehenengo deialdian, Batzarra eratutzat jo da. Horrekin, gai-zerrendako gaiak aztertzeraz jo dute bilerakideek.

1. 2019ko urriaren 24ko Batzarraren osaketa Akta onartzea.

Izenburuan adierazitako akta ahobatez onartu da.

2. 2019ko urriaren 24ko ez ohiko eta urgentziatzeko Batzarraren Akta onartzea.

Izenburuan adierazitako akta ahobatez onartu da.

3. Lehendakariaren Ebazpenen berri ematea: LE20190529.015tik LE20191126.036ra.

Mankomunitate honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearren, eta Tokiko Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Lehendakariak Batzarrari jakinarazi dizkio azken bileraz geroztik hartutako erabakiak.

LE20190619.016

LE20190625.017
LE20190625.018
LE20190701.019
LE20190702.020
LE20190718.021
LE20190722.022
LE20190820.023
LE20190916.024
LE20190918.025
LE20190927.026
LE20191001.027
LE20191009.028
LE20191011.029
LE20191011.030
LE20191022.031
LE20191022.032
LE20191022.033
LE20191030.034
LE20191125.035
LE20191126.036

Batzarra jakinaren gainean geratu da.

4. 2020 ekitaldirako Mankomunitateko plantilla organikoa eta langileen lanpostuen zerrendaren aldaketaren hasierako onarpena.

Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendariaren Ebazpenaren bidez, 2019ko azaroaren 11koa, Tolosaldeko Mankomunitateak eta Tolosako Hiltegi eskualdetarraren gestiorako udalerri mankomunitateak osatutako elkarte eratzea eta gaikuntza nazionala duten funtzionarioentzat gordetako Idazkaritza-Kontuhartzailtza lanpostu bat sortzea, elkarren artean mantentzeko, onartzen da.

Lanpostuaren ezaugarriak hauek dira: A1 taldekoa eta %85eko dedikazioa, Tolosaldeko mankomunitatearentzat.

1:820tan Zizurkilgo ordezkaria den Jose M^a Luengo Zapirain bertaratzen da.

Alkizako ordezkariak jakin nahi du noiz elkartuko den Hiltegiko Batzarra, berak ere tramitazio berdina egin behar duelako.

Adunako ordezkariaren ustez, Hiltegiak ere Mankomunitatearen antzeko martxa eraman beharko luke.

Lehendakariak erantzun die esanez datorren urte hasieran bildu beharko litzatekela, baina aurretik legealdi berriko Lehendakaria adostu beharko dela. Gaineratzen du sektorea ezagutzen duen bat egokiena izango litzatekela kargu hori betetzeko.

Lanpostua bete aurretik mankomunitate honen lanpostu zerrendara gehitu behar denez plaza berria, eta Idazkaritza eta Kontuhartzailetzako txostenak kontuan harturik, Batzarrak, ahobatez,

ERABAKI DU

LEHENA.- 2020 ekitaldirako Mankomunitateko plantilla organikoa eta langileen lanpostuen zerrendaren aldaketa hasiera batean onartzea, ondorengo plaza eta lanpostuari dagokionean:

2020KO LANPOSTUEN ZERRENDIA:

Karrerako funtzionarioei gordetako lanpostuak:

- Eskala: Idazkaritza, azpieskala Idazkari Kontu hartzailea.
- Hizkuntza eskakizuna: 4
- Hornitzeko sistema: Lehiaketa.
- Dedikazioa % 85.
- Sailkapen taldea: A1
- Destino osagarria: 25
- Berriazko destinoa: Lanpostuaren balorazio txostenaren arabera, 30.784,36 euro (%20ko osagarria barne)
- Erabateko Baliagarritasuna Modalitatea (Udalhitz-eko 75. Artikuluan jasotako modalitatea, “titularrak bere lanpostuari dagozkion funtzioak egiteko baliagarritasun osoa izan behar du bere lanalditik kanpoko orduetan, ordutegi malguarekin; zerbitzuaren premiagatik edo larrialdi egoera baten bere zerbitzuak eskatzen direnean, baliagarritasun osoa modalitateko lanpostu baten titularrak lanlekura joan beharko du, eta horren joan-etorriak sartzen dira, eta antzeko beste eskaera batzuk ere bete beharko ditu”).
- Lanpostuaren funtzioak eta bestelako inguruabarrak Consultores de Gestión Pública enpresak 2019ko azaroa data duen lanpostuaren balorazio txostenean deskribatutakoak dira.

Pertsonal laborala:

- Lanpostua: Ingurumeneko teknikaria
- Taldea: Administrazio berezia.
- Egoera: Beteta
- Sailkapen taldea: A1
- Maila: Udalhitz 15
- Dedikazioa: 100%

- H.E. 3
- Derrigortasun data: 04/06/2001
- Lanpostu honek ez dauka baloraziorik eginda.

- Lanpostua: Administraria:
- Taldea: Administrazio orokorra.
- Egoera: Beteta
- Sailkapen taldea: C1
- Maila: Udalhiltz 9
- Dedikazioa: 100%
- H.E. 3
- Derrigortasun data: 04/06/2002
- Lanpostu honek ez dauka baloraziorik eginda.

- Lanpostua: Garbiguneko ofiziala
- Taldea: Administrazio berezia.
- Egoera: Beteta
- Sailkapen taldea: C2
- Maila: Udalhiltz 9
- Dedikazioa: 100%
- H.E. 2
- Derrigortasun data: 10/12/2007
- Beste batzuk: Gida baimena behar du.
- Lanpostu honek ez dauka baloraziorik eginda.

2020KO PLANTILLA ORGANIKOA

KARRERAKO FUNTZIONARIOENTZAT GORDETA KO LANPOSTUAK.

Lanpostuaren izena	Lanp. kop	Taldea	Egoera	Oharra
-----------------------	--------------	--------	--------	--------

IZAERA NAZIONALEKO GAIKUNTZAKO ESKALA

Idazkaritzako Azpieskala.

Idazkaritza-Kontuhartzaitza 1 A1 H Dedikazioa % 85

PERTSONAL LABORALARENTZAT GORDETA KO LANPOSTUAK

ADMINISTRAZIO OROKORREKO ESKALA

Administraria. ..1 C1 Beteta

ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA

Ingurumeneko teknikaria	1	A1	Beteta
Ofiziala	1	C2	Beteta

BIGARRENA.- Akordioa jendaurrean erakustea, 15 egun baliodunetan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean aurretik iragarritz, non interesatuek aztertu eta erreklamazioak ezar ditzaten. Aipaturiko epean alegaziorik ez balego, akordioa behin betiko izaeraz onartutzat hartuko da. Erreklamazioak aurkeztuko balira, Mankomunitateko Batzarrak erabakiko lituzke hilabeteko epean.

5. 2020 ekitaldirako aurrekontua eta bera gauzatzeko araua hasiera batez onartzeko proposamena.

Kontuhartzaileak hitza hartu du lehenengoz, adierazteko 2020 ekitaldiko aurrekontua %1,69an igo dela 2019arekiko. Eurotan, 5.953.072,54-ko kopurua da.

Jarraian, teknikariak hartu du hitza batzarkideei azaltzeko zein motatako dokumentuak bidali zaizkien:

- Gastuetako partidak
- Sarrerak, zati gehiena udal ekarpenek suposatzen dutelarik.
- Eranskinak, kontratu nagusiaren banaketa herrika eta frakzioka azaltzen dutelarik.

Aurrenkontuaren gastuak eta sarrerak orekatuak agertzen dira. Ondorengo taulan jasotzen dira 2020 urtekoak:

	SARRERAK	
<u>Kapitulua</u>	<u>Izena</u>	<u>Euroak</u>
III	Tasak eta bestelako zergak	897.718,11
IV	Transferentzia arruntak	5.054.954,43
V	Ondare sarrerak	400,00
	Guztira Sarrerak	5.953.072,54
	GASTUAK	
<u>Kapitulua</u>	<u>Izena</u>	<u>Euroak</u>

I	Pertsonal gastuak	173.353,70
II	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	5.768.418,84
III	Finantza gastuak	100,00
IV	Transferentzia arruntak	0,00
VI	Inbertsio errealak	11.200
	Guztira Gastuak	5.953.072,54

Ondoren, gastuak azaltzen dira, hiru zatitan banaturik daudelarik:

1-Gastu estrukturalak, hau da, kudeaketa gastuak. Ekarpen finkoa suposatzen du eta herrien artean banatzen dira biztanlearen arabera. %11,8ko igoera jasan du, Idazkari-Kontuhartzaile lanpostu berriaren sorreragatik.

Puntu honetan aipatzekoa da ere Mankomunitateko bulegoaren alokairua, asmoa dagoelako enpresa biltzailaren pabilioira leku aldatzea, Alegiako Bazurka industrigunean kokaturik dagoelarik. Edozein kasutan, behin-betiko izaeraz izango litzateke, kontratua irauten duen bitartean.

2-Bilketa gastuak. Bi zatitan banatzen dira:

- Ekarpen finkoa, biztanlearen arabera: garbiguneko gastuak.
- Ekarpen finkoa, bilketa sistemaren arabera.

Ia ez da aldaketarik aurreikusi. Kopuruak mantenduko dira baldin eta bilketa sistemak aldatzen ez badira.

Bilketa sistemaren arabera banatutako gastuetan, ondorengo parametroak erabili dira kalkuluak egiteko:

- a) Edukiontzi bidez: altxaldia.
- b) Atez ate: denbora.
- c) Industrigunetan: soilik dauzkaten herriak, banatutako edukiontzi kopuruen arabera.

Batzarkideei bidalitako tauletan, “1. eranskina”izenekoan jasota daude bilketa gastu estrukturalak nola banatu diren herri eta frakzio bakoitzeko.

Puntu honekin amaitzeko, aipatzen da landa eremuko herrietan organikoaren gasturik ez dagoela. Edozein kasutan, aldaketarik egonez gero mankomunitateko soberakinera joango dira, bidezkoena kontsideratzen delako gainontzeko herriei alderatuz.

3-Tratamendu gastuak. Bi zatitan banatzen dira:

- Ekarpen finkoa biztanlearen arabera: garbiguneko tratamendu gastuak.
- Ekarpen aldakorra sortutakoaren arabera (errefusa, kartoia/papera, ontziak...)

Gastu hauek %2,51tan igo dira.

2020. ekitaldirako aldaketa garrantzitsu bat aurreikusten da papera/kartoiaren tratamenduan, orain arte diru sarrerak zirelako baina 2019ko abendutik aurrera tratamendu gastua izatera igaro direlako. Arrazoia honako da: orain arte papera/kartoia saldu egin da, hau da, mankomunitatearentzat sarrera bat suposatzen zuen. Prezioa ez da inoiz finkoa izan, enkantearen sistema erabiltzen zen. Azkeneko urteetako bilakaerari erreparatuz, ikusten da 2018tik aurrera jaitsiera nabarmena izan duela.

Europa mailan paperaren soberakina dago eta kalitatea asko jaitsi da, krisia dago sektorean eta enpresa asko ixten ari dira. Beraz, oso enpresa gutxi daude hondakin hau tratatzeko. Mankomunitatearen kasuan, Saica enpresak jasotzen du, eta iragarri du honako prezioak aplikatuko dituela hemendik aurrera:

- 20€/tona paperarentzat.
- 10€/tona kartoiarentzat.

Adunako ordezkariaren ustez, komenigarria litzateke sektorearen beste enpresekin hitzegitea, jakiteko zein prezio dituzten. Horien artean Arregi aipatzen du. Teknikariak erantzun dio kontuan hartuko duela.

Egoera honek eragin zuzena izango du mankomunitateko sarreretan.. Zehazki, ekarpenak ez diren sarreretan %22ko jaitsiera izatea aurreikusi da, eta aldiz, udal ekarpenetako zati aldakorrek % 7,6ko igoera jasan du.

Edozein kasutan, papera/kartoia orain arte bezala gaika jasotzen jarraitu behar da, bestela errefusara joango litzateke eta.

Alkizako ordezkariak galdetu dio teknikariari nola ikusten duen egoera epe luzera. Berak erantzun dio okerragoa ez duela ikusten, baina inongo ziurtasunik gabe.

Alkizakoak ere jakin nahi du beste eskualdetan zein egoeratan dauden, baita Euskal Autonomi Erkidego mailan ere. Teknikariak azaldu du, adibidez, Gasteizko Udalak antolatutako lehiaketara Saica enpresa ez dela azaldu. Gaineratu du jarraipena egingo duela beste eskualdetako lehiaketetan eta azaldu du Gipuzkoako mankomunitateak harremanetan daudela gai honen inguruan.

Lehendakariak esan du egoera honek islada izango duela aurrekontuan, zentzu negatiboan.

Udal ekarpenei dagokionez, lehen aipatu den bezala, igoera jasan dute, ondorengo taulan ikusten den bezala herriz herri banaturik:

HERRIA	BIZTANLEAK (ine 01/01/2018)	EKARPEN FINKOA				GUZTIRA EKARPEN FINKOA
		GASTU ESTRUKTURALAK (KUDEAKETA GASTUA)	BILKETA GASTUAK		TRATAMENTU GASTUAK	
		BIZTANLEAREN ARABERAKOA		BIZTANLEAREN ARABERAKOA	BIZTANLEAREN ARABERAKOA	
ABALTZISKETA	320	2.717,82	9.078,27	1.059,53	664,37	13.519,98
ADUNA	469	3.983,30	58.346,40	1.552,87	973,71	64.856,28
ALBIZTUR	309	2.624,39	10.861,85	1.023,10	641,53	15.150,87
ALEGIA	1.726	14.659,22	165.715,20	5.714,82	3.583,42	189.672,66
ALKIZA	374	3.176,45	9.928,22	1.238,32	776,48	15.119,47
ALTZO	427	3.626,59	21.635,81	1.413,80	886,51	27.562,71
AMEZKETA	939	7.975,09	18.302,62	3.109,05	1.949,50	31.336,25
ANDOAIN	14.618	124.153,24	770.380,46	48.400,46	30.349,03	973.283,19
ANOETA	2.034	17.275,12	140.403,00	6.734,61	4.222,87	168.635,60
ASTEASU	1.533	13.020,04	106.201,65	5.075,79	3.182,72	127.480,20
BALIARRAIN	137	1.163,57	5.556,86	453,61	284,43	7.458,47
BELAUNTZA	239	2.029,87	6.428,85	791,33	496,20	9.746,25
BERASTEGI	1.081	9.181,12	19.120,04	3.579,21	2.244,31	34.124,68
BERROBI	602	5.112,89	11.248,11	1.993,23	1.249,84	19.604,07
EL DUAIN	239	2.029,87	5.565,73	791,33	496,20	8.883,13
GAZTELU	153	1.299,46	4.482,65	506,59	317,65	6.606,34
HERNIALDE	313	2.658,36	9.747,52	1.036,35	649,83	14.092,06
IBARRA	4.172	35.433,53	275.231,10	13.813,57	8.661,66	333.139,86
IKAZTEGIETA	488	4.144,67	76.617,34	1.615,78	1.013,16	83.390,94
IRURA	1.862	15.814,29	150.907,59	6.165,12	3.865,78	176.752,77
LARRAUL	253	2.148,77	6.660,04	837,69	525,26	10.171,76
LEABURU	377	3.201,93	23.878,60	1.248,25	782,71	29.111,49
LIZARTZA	602	5.112,89	18.814,17	1.993,23	1.249,84	27.170,13
ORENDAIN	218	1.851,51	4.762,65	721,80	452,60	7.788,56
OREXA	123	1.044,66	5.156,41	407,26	255,37	6.863,69
TOLOSA	19.525	165.829,25	869.038,92	64.647,62	40.536,66	1.140.052,45
VILLABONA	5.881	49.948,36	260.437,01	19.472,10	12.209,79	342.067,26
ZIZURKIL	2.976	25.275,69	211.123,53	9.853,59	6.178,60	252.431,41
TOLOSALDEA	61.990	526.491,94	3.275.630,60	205.250,00	128.700,00	4.136.072,54

Alegiko ordezkariak hitza hartu du adieraziz, enpresa biltzaileak bere herrian alokatu duen pabilioiari buruz eta mankomunitateak, aldi berean, zuzenean jabeari alokatu nahi diona bere egoitza ezartzeko, oraindik ez dudela jaso enpresaren aldetik jarduera baimenaren eskaririk. Gaineratu du eremu hori oso zikina eta gaizki mantenduta daukatela.

Adunako ordezkariak, gai honi eutsiz, adierazi du Batzarra amaitu aurretik proposamen bat jarriko duela mahai gainean.

Ondoren, agertutako guztiek ados daudenez aurkeztutako espedientearekin eta emandako azalpenekin, Batzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosaldeko Mankomunitateko 2020. ekitaldirako aurrekontu espedientea eta dokumentu osagarriak hasiera batez onartzea.

BIGARRENA.- Tolosaldeko Mankomunitateko 2020. ekitaldirako udalen ekarpenak egiteko araua, egutegia eta udalen ekarpen sistema hasiera batez onartzea.

HIRUGARRENA.- Aurrekontuaren espedientea, udalen ekarpenak egiteko araua, egutegia eta sistema hamabost eguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako, erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, Tolosaldeko Mankomunitateko iragarki taulan ipiniko da, interesatuek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, Aurrekontua behin-betiko onartua kontsideratuko litzateke, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

6. Mankomunitateko langileen ordainsarien igoeraren onarpena (2019ko uztailaren 1etik aurrerako eraginkortasunarekin).

Ikusita abenduaren 21eko 24/2018 Errege Lege-Dekretuak, zeinen bitartez onetsiko dira ordainsarien arloko premiazko neurriak sektore publikoaren esparruan, bere 3.2 artikuluan honela dioela: 2019. urtean, sektore publikoaren zerbitzura lan egiten duten langileen ordainsariei gehituko litzaioke, Barne Produktu Gordinaren (BPG) igoera 2018ko prezio iraunkorretan %2,5ekoa edo handiagoa izango balitz, 2019ko uztailaren 1ari dagokion eraginarekin, beste %0,25eko soldataren igoera.

Ikusita Idazkaritzaren txostena.

Ikusita Kontuhartzailetzaren txostena.

Kontuan izanda kreditu nahikoa eta egokia dagoela gastuari aurre egiteko.

Beraz, hau guztia kontuan harturik, Batzarrak, ahobatez,

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosaldeko Mankomunitateko langileen soldatari beste 0,25%eko igoera gehitzea, 2019ko uztailaren 1etik aurrerako eraginarekin, Barne Produktu Gordinak (BPG), 2018ko prezio iraunkorretan, abenduaren 21eko 24/2018 Errege Lege-Dekretuak ezartzen duen %2,5era iritsi delako.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri interesatuei jakinaraztea.

7. 2020 ekitaldirako Idazkari eta Kontuhartzaileen izendapena, lanpostuak behin betiko izaeraz hornitu bitartean.

Idazkaria eta kontuhartzailea aretotik ateratzen dira.

Idazkari-Kontuhartzaile plaza behin betiko izaeraz hornitu bitartean, proposatzen da lanpostu hauek behin behineko izaeraz hornitzea, orain arte bezala.

2019 urtean izendatutako langileei proposatu zaie karguan jarraitzea, hau da, Adunako Idazkaria eta Villabonako Kontuhartzaileari, biek onartu dutelarik.

2020 ekitaldiko aurrekontuan Idazkari eta Kontuhartzaile gastua jasotzen da, 227.11.162.20 2020 partidari, 3.838,24 € ko diru kopuruarekin. Gastu hauek Aduna eta Villabonako Udalei ordainduko zaizkie, erdibanatuz bien artean.

Gaia aztertu ondoren, Batzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

LEHENA.- Leire Arteaga Zumeta, Adunako udaleko Idazkaria, Tolosaldeko Mankomunitateko Idazkaria izendatzea 2020 urterako, lanpostua behin betiko izaeraz hornitu bitartean.

BIGARRENA.- Maider Amado Mendizabal, Villabonako Udaleko Kontuhartzailea, Tolosaldeko Mankomunitateko Kontuhartzaile izendatzea 2020 urterako, lanpostua behin betiko izaeraz hornitu bitartean.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau interesdunei jakinaraztea.

8. Berri ematea: Tolosaldeko Mankomunitatearen estatutoen aldaketa prozedura berria bideratzeko aholkulari juridikoa kontratatze prozesuaren egungo egoera.

Lehendakariak azaldu du lehiaketa baten bidez egin nahi dela aholkularitza juridikoaren kontratazioa, eta horretarako legeak zenbait aukera ematen dituela. Esate baterako, 1.500 €-ko gehienezko kopuruarekin, oinarri batzuk finkatu eta azaldu 3 enpresei. Horrela, lizitazio arrun batek ezartzen dituen prozedurak saihestu daitezke.

Larraulgo ordezkariaren ustez, lizitazioa egitea komenigarria da gardentasuna bermatzeko. Gaineratu du prozedura “supersinplifikatua” erabili daitekela eta oso epe motzean.

Adunako ordezkariaren iritziz, prozesua azkartzea komenigarria litzateke.

Idazkariak, Larraulgo ordezkariak esan duenaren harira, azaldu du prozedura hori oso gauza arruntetako bakarrik erabili daitekela, alde ekonomikoa soilik baloratzen delarik.

Irurako ordezkariari alde ekonomikoaz gain, garrantzitsua iruditzen zaio enpresaren beste alderdi batzuk baloratzea. Adibidez solbentzia, esperientzia...

Adunako ordezkariak uste du hiru edo bost enpresekin kontaktatu daitekela eta kontratua esleitu eskaintza merkeena aurkezten duenari. Horrela, bermatu daiteke enpresek teknikoki erantzungo dutela.

Azkenik, Lehendakariak iritzi du oinarri berdinak ezarri behar direla lehiaketara aurkezten diren enpresei.

Batzarra jakinaren gainean geratu da.

9. Galde-erreguak.

Adunako ordezkariak hitza hartu du, mankomunitateko basea edo egoitzaren gaia mahai gainean jarriaz. Aipatu du, lehenengoz, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren 2018ko fiskalizazio txostena iritsi dela, ikusten delarik mankomunitateak oso emaitza onak lortu dituela. Era berean, azpimarratzen da remanentea edo soberakina oso handia dela, hau da, mankomunitateak diru asko duela pilatuta eta Batzarrari dagokiola erabakitzea zer egin diru horrekin.

Kontuhartzaileak, puntu honetan, azaldu nahi du honakoa: ekarpenak eta aurrekontuaren arabera exekutatu ez diren gastuei dagokionez, Batzarrak daukala eskumena erabakitzeko nora bideratu, besteen artean remanentera ere.

Adunako ordezkariak adierazi du, baseari buruz, orain arte mankomunitateak ez duela propiorik izan, aldiz, gainontzeko mankomunitateak badauzkatelarik. Eta gai honen inguruan orain arte emandako pausoak laburbildu ditu: herriei kokapenak eskatu zitzaizkien, bi aukera aztertu zirelarik bideragarritasun plan batean: Tolosa eta Aduna.

Emaitza bezela Aduna adierazi zen egokiena, bai ekonomikoki eta baita teknikoki ere, lursaila soilik delako eta eraikina mankomunitatearen beharrei egokitu daitekelako.

Beraz, Adunako ordezkariak proposamen hau egin dio Batzarrari: remanentearen dirua base berria Adunako industrigunean eraikitzeko erabiltzea. Momentu honetan, Adunako Udalak plan plartziala aldatzen ari da, lursail horretan eraiki ahal izateko, eta hilabete batzuk eramango ditu bere tramitazioak. Ondoren, kontsezioan utziko litzateke mankomunitateari, 50 urtetan. Trukean, errepidea konpontzea eskatuko luke udalak. Guztira, 800.000 €ko kostua izatea aurreikusiko litzateke. Eraikina alokairuan utziko litzateke enpresa biltzaileari, kamioi eta edukiontzien gordeleku gisa.

Proposamen honekin ere lortzen da mankomunitateak behin-betiko egoitza izatea, hirugarrenen menpe egon gabe.

Lehendakariak, gaia aldatuz, mankomunitateko langileei, Idazkariari eta Kontuhartzaileari eskerraz eman nahi dizkie, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren 2018ko Fiskalizaio Txostenean lortutako emaitza onarengatik.

Amaitzeko, Gazteluko ordezkariak eskatu nahi du, datozen Batzarretako, Power Point edo antzeko aurkezpen programak erabiltzea, aurrekontuen taulak hobeto ulertzeko.

Eta bileraren helburua beteta, arratsaldeko hemeretzi orduak eta hogeit hamar minutu direnean, Lehendakariak bilera bukatutzat eman du eta nik, Idazkari naizenak, guztia ziurtatzen dut.

LEHENDAKARIA

A

IDAZKARIA